

Herririk Herri | 2

EAJren abstentzioak Abadiñoko aurrekontuak onartzea ahalbidetu du



Berbaz | 8

Gaitz neurologikodun ume eta gurasoei laguntzeko kooperatiba sortu dute

Kultura | 12

Durangoko zazpi gune hartuko dituzte L'atelier eskolakoek Dantza Egunean

KIROLAK | 15



Etxebarria eta Murgoitio Saharako desertuan zehar

David Etxebarria eta Egoitz Murgoitio txirindulariak Marokora bidean dira, Milenio Titan Desert lasterketan parte hartzeko. Mendi-bizikletak prest dituzte, 680 kilometrotan sei etapa gogor zeharkatzeko.

Zalao Fuertes

BERRIZ | 6

Iturriza historialaria omenduko dute

Juan Ramon Iturriza hil zeneko 200. urtemuga dela-eta, udalak eta Gerediagak ekitaldia antolatu dute domekarako. Jon Irazabalek hari buruzko liburuxka idatzi du.



KULTURA | 11

Bertsolarien sintesi gaitasunaz ariko da Lujanbio Plateruenean

DF Bertsozale Eskola egingo dute maiatzeko eguenetan, eta lau hitzalditan, bertsolarien, epaileen eta gai-jartzaileen gorabeherak landuko dituzte. Maiatzaren 31n bukatuko dute, bertso-trama batez.



**INMOBILIARIA
SAN FAUSTO, S.A.**



46 etxebizitza libre:

- 2 logela - 76,75 m²
- 3 logela - 92,10/97,40 m²
- 4 logela - 102,66 m²



PROMOZIO BERRIA MATIENAN

20 etxebizitza tasatu:

- 2 logela - 58,45 m²
- 3 logela - 72,80 m²

Garajeak eta trastelekuak

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00 - www.inmorehala.com

Salmenta bulegoa obran bertan

Durangaldea | 4

Erralderen administrazio kontseilua utzi dute EAJK eta Alk

Durangaldea | 7

Goi tentsioko linearen proiektua kolokan jarri du dekretu batek

Atxondo | 5

Astelehenetan zarratu egingo dute BBKren bulegoa

Zaldibar | 7

Eskola berriaren proiektua bozkatuko dute herritarrek

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

DURANGO

Durango Kirolak elkarteari 60.000 euro emango dizkio udalak

EAJk, Bilduk, PSE-EEK eta PPK kreditu aldaketaren alde bozkatu dute, eta Aralar abstenitu egin da

Herriko kirolgune publikoak kudeatzen dituen erakunde autonomoari, Durango Kirolei, 60.000 euro ematea onartu dute osoko bilkuran, laster martxan ipiniko dituzten hobekuntzak egiteko.

Diru-atal hori kreditu aldaketa bidez bideratu du udalak. Aldaketaren alde bozkatu dute alderdi guztiek, Aralarrek izan ezik; abstenitu egin da. Dani Maeztu Aralarren zinegotziak azaldu duenez, kreditu aldaketak "beharrezkoak" dira, "baina, urtean zehar, gastu puntualak barik, asko erre-

pikatzen diren aldaketak dira". Aurrekontuen eztabaidan sakontzeko premia ikusten du Maeztuk, "soberakinekin" zer egin eztabaidatzen ibili beharrean".

Landako kirol guneak saskibaloia kantzak margotu eta barnizatu behar dituzte, eta 23.000 euroko kostua izango dute lanek. Irailerako, federerazioaren araudi berrira egokitu ezear, ezingo litzateke kantzak jokatu.

Landakon, eskalada-horma alboko futbito zelaietan, 30.091 euro erabiliko dituzte, larrialdietarako ate biipintzeko. Horrez gainera, Tabirako igerilekuetan kloroa eta produktu kimikoak dosifikatzeko makina apurtuta dago, eta berri bat erosteko 6.839 euro beharko dituzte. ■ A. U.

Landakoko kirol guneak saskibaloia kantzak margotu eta barnizatu behar dituzte

Aralarrek osoko zuzenketa aurkeztu die aurrekontuei

Aralarrek osoko zuzenketa aurkeztu zien joan zen astean EAJren aurrekontuei. Gobernu taldearen proposamenari babes soziala falta zaiola uste dute eta kritikatu egin dute talde politikoei "informazio garrantzitsua eraztu ez izana".

"Parte-hartze politikoa ulertzeko eta egiteko modu bat da, batez ere herri mailan", dio Arala-

rrek. Gauregungo testuinguruan, diru sarrerak murriztu direnez, gastuaren kudeaketa egiterakoan "irritzi eta ikuspegi ezberdinak izan behar dira eta oinarritzak da herriartarrei galdetzea non inbertitu gura duten". Proposamenaren ageri diren inbertsioen garrantzia zaltzan ipini barik, "horien oinarrian, babes sozialak egon behar luke eta ez babes politikoa bakarrik".

Aralarren ustez, gobernu taldea "parte-hartze politikoiari atek irekitzearen aurka dago", aurrekontuak "berandu" aurkeztu dituzte, eta gainerako alderdiei euren lan-keta egiteko "informazio garrantzitsua" falta zaie. ■ J. D.

Maiatzaren 1ean mobilizatzeko deia egin du LAB sindikatuak

Maiatzaren 1a dela-eta, Durangaldeko LABek manifestazioa deitu du *Langileok Euskal Herria helburu, lotu borrokari* lelopean, 12:30ean Durangoko udaletxe plaza-rtatik irtenda.

Ondoren, 15:00etarako bazkaria antolatu dute Andra Marian. LABeko arduradunek azaldu duteenez, txartelak salgai daude sindikatuaren egoitzetan eta baita beste hainbat lekutan ere: Durangoko Intxaurren, Alpinon eta Mesoi Barrian, Zornotzako Herrikoan eta Elorrioko Portalekuan. Txar-

telak 15 euro balio du; ikasle eta langabetuentzako, 8 euro.

Sindikatuak aldarrikatzen duenez, "bide bakarra dago sartu nahi gaituzten zulo horretatik irteteko: Euskal Herria eta euskal herritarrak burujabeak izatea". Gaineratu dutenez, "momentua da bestelako Euskal Herria eraikitzeko. Patronalaren asmoak lantokiz lantoki eta sektorez sektore gelditzeko, bankari gure bizitzekin ez dela jolasten argi uzteko, instituzioak herritarren zerbitzura eta ez kapitalaren mesedetan kokatzea behartzeko". ■ J. G.

LABek manifestazioa deitu du 'Langileok Euskal Herria helburu, lotu borrokari' lelopean, 12:30ean



Udalekuetako lehenengo edizioko ume eta hezitzaileak, Ibaizalen.

Udan Olgetan udalekuetarako izen-emate epea hasi dute

Berbarok antolatutako udalekuak 3-10 urte arteko umei zuzenduta daude

Ekainaren 25etik uztailearen 27ra izango dira udalekuak eta hiru eta hamar urte bitarteko umeek eman ahal dute izena. Bost aste horietan edo aste bakoitzerako aukera eskaini du Berbarok. Izena emateko epea, maiatzaren 11n amaituko da. Dagoeneko plazen erdiak beteta daudela eta udalekuen bigarren edizioak izandako harreragaz pozik daude Berbaron: "Ume eta gurasoek udalekuak ezagutzen dituztenez, orokorrean iaz baino ume gehiagok izena eman dute", azaldu du Oihane Barrutia Berba-

ro elkarteko gazte saileko arduradunak.

Tabirako igerilekuetan bainualdiak, egun osoko irteerak, tailerrak, jolasak, kirola... Bost asterako egitaraua prestatu du Berbaro elkarteak, Udan Olgetan izeneko udalekuetarako. Joan zen astera arte, bazkideek lehentasuna eduki dute izena emateko.

Tabirako igerilekuetan bainuak, egun osoko irteerak, tailerrak, jolasak, kirolak...

Aste honetan hasi eta maiatzaren 11ra arte, izena edonork eman ahal da.

2002 eta 2008 artean jaiotako umei zuzendutako eskaintza da. Bost aste diren arren, aste bakoitzerako izena emateko aukera ere badago. Goizez izango dira udalekuak, 09:00etatik 13:30era, eta astean behin egun osoko irteera egingo dute 16:30 arte. Behar-gintzaren egoitzan ibiliko dira aurten ume eta hezitzaileak. Izena eman ahala lortuko dute plaza apuntatzen direnek: 946202540 /gazteak@berbaro.com. ■ A. U.



Jon Barruetabeña
Ikaslea

Primeran pasatu nuen iaz Udan Olgetan en. Uda sasoiaren bost astez jolasetan, tailerretan eta beste hainbat gauzatan parte hartu genuen. Gehien gustatu zitzaidana Mungiako Olen-teroren etxera egin genuen bisita izan zen. Ikaragarri gustatu zitzaidan. Hezitzaileekin ere oso ondo konpondu nintzen. Aurten ere gogotsu nago Berbaroren udalekuetara joateko.



Saioa Bengoa
Gurasoa

Esperientzia oso ona izan genuen iaz Berbarok antolatutako udalekuetan. Ixone lau urteko alaba bertara joan zen lau astean, eta ezin hobeto pasatu zuen. Sopuertara egin zuten irteera batean tirolinan eta ibili zen, eta asko gustatu zitzaion. Udalekuetara noiz joango den berriro galdetzen eman du urte osoa. Inguruko guztiei gomen datu diet esperientzia.



Garazi Etxebarria
Berbaroko Hezitzailea

Udan Olgetan udalekuak lehenengoz antolatu genituen iaz. Taldea berria zen (14-15 hezitzaile) eta antolakuntza oso ondo joan zen. Gure helburua eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz antolatzea da, eta giro eskalduna sortu genuen. Asteagan bat aukeratu eta horren inguruan hainbat ekintza antolatu genituen. Batez ere irteerak gustatu zitzaizkien umei.



Erralderen administrazio kontseilua utzi dute EAJ eta Alk

Bilduk berkapitalizazioa eskatu du; EAJk eta Alk likidazioaren alde egin dute

Erralderen administrazio kontseiluaren azken batzarrean, elkartearen inguruko jarrera bi azaleratu dira. Erralde likidatzea edo berkapitalizatzea izan dute eztabaidagai. Bilduko lau ordezkariak berkapitalizazioaren aldeko botoa eman dute. Likidazioa gura dute, ostera, Elorrio, Berriz eta Ispasterko EAJk, eta baita Abadiñoko Independienteek ere (AI). Gainera, alderdi horietako lau ordezkariak administrazio kontseilutik irtetea erabaki dute.

Abadiñoko osoko bilkuran Bilduko Aitor Azuetari erantzunez, Jose Luis Navarro alkateak (AI) bere

dimisioa baieztatu du asteon. Arrazoitu duenez, "egoera dramatiko da". Erralde elkarteak kiebra egoeran dagoela azaldu du. Alkatearen berbetan, merkataritza abokatu

Abadiñoko alkateak Erralde kiebra egoeran dagoela azaldu du osoko bilkuran

batek azaldu dio irtenbidea "enpresa disolbatzea" izango litza-tekeela. Osoko bilkuran Navarrok azaldu duenez, "Durangoko hiltze-giak 2,6 milioiko zorra dauka, eta

4 milioi falta zaizkigu proiektu berrirako".

Enplegu erregulazioa

Otsailetik, hiltegiak langileak enplegua erregulatzeko dossierrean sartuta daude, sei hilerako. Juanjo Elgezabal CCOOko ordezkariak esan duenez, oraindik ez dakite zer gertatuko den, baina beltz ikusten du gaia: "Egoera luzatu beharrean, logikoena kontratuak etetea da".

Inork zorra abalatzeari "gaitz" ikusten du Elgezabalek, eta proiektuak aurrera egiteko administrazioen eta politikarien arteko adostasuna falta da, bere ustez. ■ A. U.



Itxiera aginduaren osteko batzarra, urtarrilean.

Durango 1936 elkarteak: "75 urtera, krimenek zigor barik diraute"

Karlistek Durango hartu zuten egunaren urtemugan, herrian egindako gehiegikeriak salatu ditu elkarteak

Bihar, apirilak 28, 75 urte beteko dira Montejurra tertzioko karlistak Durangora sartu zirela. Urte askoan ospatu egiten zen *Liberazio Eguna*. Herria hartu eta gero egon ziren hilketa, bortxaketa, lapurreta eta gehiegikeriak gaitzetsi ditu Durango 1936 Kultur Elkarteak: "Handik 75 urtera, krimen horiek guztiak zigor barik diraute".

Faxistek preso hartutako herri-tarrak esklabo erabili zituztela nabarmendu du Durango 1936-k, oharbidez: "Bonbardaketak birrindutako Durango garbitu eta berre-raiki behar izan zuten". Testuan kri-

tikatu duenez, etxeak okupatu eta lur-sailak lapurtu zituzten faxistek, eta hainbat sexu eraso egin zituzten. Zornotzan, adibidez, tradizionalistek 30 andra aste betetako bahitu zituztela azaldu dute.

Testigantzak

Elkarteak nabarmendu duenez, "desagertu eragin zituzten lagunak kopurua eta izen-abizenak ez dakizkigu oraindik". Durango 1936-k gerran eraildako eta desagertutako pertsonen datu basea osatzen eta testigantzak batzen jarraitzen du. ■ A. U.

DIURRETA

Merkatua jarriko dute hamabostean behin

Hamabost egunean behin merkata edukiko dute Iurretan, maiatzaren 4tik aurrera. Hileko lehengo eta hirugarren egunek izango dira merkatu egunak.

Frai Juan Askondo kalean eta Dantzari auzunean 25 postu inguru ipiniko dituzte: hamabost, oihal eta telekin, eta hamar bertako baserriko produktuekin.

Merkataritza eta ostalaritza jarduerari bultzada handiagoa ematea lortu gura dute merkatu-gaz, herrigunea "suspertzeko". Bide horretan jarraitzea da udalaren asmoa, arduradunen arabera. Horrez gainera, "herriko eta inguruko baserriarren produktuen kontsumoa sustatzea ere bai", zehaztu dutenez. ■ A. B.

DIOTXANDIO

Megafonia berria ipini dute Mainondo eskolan

Aste Santuan, megafonia berria estreinatu zuten Mainondo herri eskolan. Aurrekoak baino aukera gehiago eskaintzen ditu. Adibidez: ikasleen sarrera-irteeretan musika lasaia jarri, edo mezuahelaz-

Gimnasio inguruan materiala batzeko armairu berria ere ipiniko dute laster

teko, bozgorailua aukeratu eta dagokion klaseari bakarrik esan.

Bestalde, Gorbeialdea Landa Garapen elkartearengandik jaso duten diru-laguntza bat, armairu berri bat egiteko aprobetxatuko du Udalak, eskolako gimnasio inguruan. Eskola materiala gordetzeko balioko du. Dagoeneko armairu egiteko neurriak hartzeraz joan direla adierazi dute herri eskola-ko ordezkariak. ■ J. D.

AURREMATRIKULAZIO DATAK

- DBH:
 - Gela egonkorra
 - Laguntza gelak
 - Kurrikulum anitzak eratzeko programak
- BATXILERGOAK:
 - Zientziak eta Teknologia (Aukera: eleanitza)
 - Giza eta Gizarte Zientziak (Aukera: eleanitza)
 - Arteak (Arte plastikoak eta diseinua)
- ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA (ZIG)
- HEZIKETA ZIKLOAK
 - Erdi mailako heziketa zikloa: Landa Ingurune Gorpuz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D eredu)
 - Goi mailako heziketa zikloa: Gorpuz eta Kirol Ekintzen Sustapena (D eredu)

Batxilergoak
maiatzaren
2tik 11ra

Institutuan,
jakina!!

IES Frai Juan de Zumarraga - Durango BHI

institutua
Durango

ABADIÑO

EAJ abstenituta, aurrekontuak onartu ditu udalak

Al alderdiak azaldu duenez, aurrekontuko gastu arrunta gutxitzea izan da euren helburu nagusia

Azken bi urteetan udal aurrekontua onartzeko adostasunik ez dute lortu alderdiek Abadiñon. Martitzeneko plenoan, EAJko zinegotzi bien abstentzioak ahalbidetu zuen alderdi horreketa gobernuak adosturiko 2012rako udal aurrekontua onartzea.

Bilduko Aitor Azuetak gogor kritikatu du aurrekontua: "Ez dute herritarren lehentasunen arabera diseinatu"

"Ez da aurrekonturik onena, ezta gustokoen duguna ere", esan du Eneko Etxebarria jeltzaleak. Hala ere, EAJko gobernuaren proiektuak aurrera egitea ahalbidetu du, "herriarentzako ezinbestekoak diren hainbat inbertsio gauzatzea dakarrelako", eta aurrekontu proposamenean gastua murrizteko "saiakera" egiten delako. Horrela azaldu zuen abstentzioaren aldeko erabakia Etxebarriak.

Hiru kreditu, bi urtean

Antonio Serrano Aiko zinegotziak azaldu duenez, udalaren gastu arrunta murriztea izan dute helburu aurrekontua diseinatzeko. Eguneroko gastua eta pertsonalarena %3 gutxitzea aurreikusitako aurrekontua ere 20.000 euro gutxituko dute.

Hiru kreditu aurreikusi ditu udalak, aurtengo eta datorren urteko inbertsioak finantzatzeko. Kredituok ere datozen bi urtean bueltatzeko konpromisoa hartu du Abadiñoko Udalak.

Besteak beste, Traña-Matienako eta Zelaietako haurreskola berriak eraikitzeke diru-atalak jasotzen ditu aurrekontuak. Jose Luis Navarro alkateak aurreratu duenez, uda honetan hasiko dituzte Traña-Matienan haurreskola eraikitzeke lanak, eta 2013an egingo dituzte Zelaietan haurreskolako obrak. Eusko Jaurlaritzak altxatuko duen eraikin berriaren beheko solairuan atonduko du udalak

2012rako INBERTSIO NAGUSIAK

Traña-Matienako haurreskola: **600.000 €**

Zelaietako Kalbario ingurua berregituratu: **454.000 €**

Eraginkortasun energetikoa hobetu: **376.746 €**

Traña-Matienako eskolako energia sistema: **357.754 €**

Errota kultur etxeko teilatua konpondu: **99.747 €**

Jolasguneak: **75.000 €**

Haizetarako kirolgunea atondu, erabilera anitzeko eraikin alboan: **35.000 €**

haurreskola. Guztira, 1.700.000 euroko inbertsioa aurreikusi dute, haurreskolen proiektuak bi urtean burutzeko.

Datorren urtera arte luzatuko diren lanen artean, Zelaietako Kalbario ingurua berregituratzeko proiektua ere jaso dute. Saneamendua eta irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dituzte.

Bilduko Aitor Azuetak gogor kritikatu du aurrekontua: "Ez da herritarren lehentasunen arabera diseinatu". Azuetaren berbetan, "ez dugu proposamen hau onartuko, bat ez gatozen herri eredu bat garatzen duelako". Kontra bozkatu zuten. ■ I.E.



Eneko Etxebarria eta Sarai Mimenza (EAJ), eskua altxatzen.

Gaur hasi eta zortzi egunean, jai egingo dute Traña-Matienan

San Prudentzio jaietako zortzi egunerako egitaraua abiatuko dute gaur iluntzean, Traña-Matienan. Jai egunak elkarregaz pasatzeko prest, Trañako zubian batuko dira koadrilak, 19:00etan.

Traña plaza izango da jaiagaz gozatu gura dutenen elkargune nagusia egunotan. Umeentzako jolasak eta ikuskizunak eta herri bazkariak hartuko ditu egunez, esaterako, eta kontzertuak gaez.

Traña plaza izango da egunotan, jaiagaz gozatu gura dutenen elkargunea

Durungaldeko Jaizale txistulari taldearen emanaldia egongo da domekan, 12:00etan. Done Zezili Abadiño abesbatzagaz jardungo dute txistulariek, hirugarren urtez. Eleder Iturrietak zuzenduko du txistulari taldea, eta Yolanda Etxeitak, abesbatza.

Azkenengoz orain hogeitau urte altxatu zuten hamabost lagunek jasoko dute gaur Donien Atxa. Urteko herritar ospetsuenari omenaldia egingo diote, 20:00etan, eta auzoko Iluntze dantza taldearen emanaldia ere izango da jaien lehenengo egunean. ■ I.E.

ELORRIO

Lan-taldeetan aztertuko dute herriko kirol arloa

Kirolaren sustapena eta azpiegiturak baloratuko dituzte prozesuan, plan estrategikoa garatzeko



Kiroldegia kudeaketa eraginkortzeko asmoa dute.

Joseba Mujika alkateordearen berbetan, udaletik ez da orain arte sustapen-politikarik eta zuzendaritzarik egon. Hori dela-eta, planifikazioa egin gura dute, klubak "abandonatuta" ez uzteko. Politika zehazteaz gainera, "instalazioak indartzea" gura dute.

Kirol saileko zinegotziak, Aitor Agirrek, aldaketan beharraz egin du berba. Kiroldegia

kudeaketa eraginkortzea dute helburu, "badakigu-eta arazoak daudela".

Bost hilabetekoa izango da plan estrategikoa garapena. Hiru batzorde eratuko dituzte: kirolagaz lotura daukatenena, herritar guztiei zabalduko eta udal ordezkaria. Azken hauek jarraitu eta koordinatuko dute prozesu osoa. ■ M.O.

MALLABIA

Datorren ikasturterako izena eman ahal da haurreskolan

Maiatzeko matrikulazioa martxan jarri dute Mallabiko haurreskolan. Maiatzaren 2tik 11ra bitartean 0 eta 2 urte arteko umeak haurtzaindegira eroateko izena eman daiteke haurreskolan bertan. Behin betiko zerrendak uztailaren 12an ezagutzera emango dituzte.

Esti Arrizabalaga hezitzaileak azaldu duenez, datorren irailtik aurrera 2011n jaiotako umeentzako sei plaza izango dituzte, eta 2012koentzako zortzi. Hezitzailearen berbetan,

Datorren irailtik aurrera 2011n jaiotako umeentzako sei plaza izango dituzte, eta 2012koentzako zortzi

haurtzaindegia beteta dagoen arren, momentuz ez dute leku arazorik izan: "Hainbat gazte etorri dira etxe berrietan bizitzera eta ume kopuruak gora egin du azken urteotan".

Ikasturte honetan, Mallabiko haurtzaindegian hiru hezitzaile ari dira, lanaldi osora, hamahiru ume zaintzen. ■ J.G.

Emakume Eskola eratu dute, lau ikastarogaz

"Berdintasuna lortzeko, emakumeon jabeakuntza pertsonal eta kolektibo ezinbestekoa da". Motibo horregaz antolatuko dute Emakume Eskola. "Emakumeok eguneroko bizimoduan oztopoak aurkitzen ditugu, diskriminazioaren ondorioz". Elorriko Emakume Eskolaren antolatzaileek helburuen berri eman dute: elkarrengandik ikastea, hartu-emanak bultzatzea, sareak eratzea eta elkarpenak jasotzea, besteak beste.

Lau ikastaro antolatu dituzte. Emozioen lanketan oinarritutakoa izango da lehenengoa, eta maiatzaren 4an hasiko da. Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa, autodefentsa tailerra eta internetegaz lotutako saioak etorriko dira ondoren.

Emakume Eskolarako, udal-letxean eman behar da izena, eta bost euro ordaindu; epea zabalik dago. ■ M.O.

Emozioen lanketan oinarritutako ikastaroa izango da lehenengoa

UDABERRIKO SEGURTASUN-PLANA

**EGURALDIAK
ORAINDIK SEGURTASUNIK EMATEN EZ
BADIZU, LORTU EZAZU ZUK ZEUK.**



Autoaren segurtasunerako ezinbestekoa da pneumatikoak bikain izatea.

Begiratu ondo gurpilak, astirik galdu gabe.

RENAULTen eskaintza zoragarriak ditugu zure zain, Michelin etxeokak.

NEURRIA	PREZIOA
205/55 R16 91V	103€
205/60 R16 92H	126€
185/60 R15 84H	94€
195/65 R15 91H	78€

www.renaultservicios.es

**RENAULT
SERVICIOS**

Eskaintza honek 2012ko maiatzaren 31ra arte iraungo du Bizkaiko Renault sarean.
Prezioak eskulana, balbula, ekotasia eta BEZa barne ditu.



RENAULT *recomienda* **elf**



GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA / KALE NAGUSIA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO www.gaursaautoak.com

BERRIZ

Iturriza omenduko dute, historia batzen egin zuen lanagatik

Hil zeneko 200. urtemuga da aurten, eta udalak eta Gerediagak ekitaldia eratu dute domekarako

Juan Ramon Iturrizari omenaldia egingo diote domekan, historialari lanean egindako ibilbidea gogoratzeko. Aurten 200 urte dira hil zela, eta bere jaioteguna aukeratu dute ekitaldirako. 12:00etan, Gernikako Arbolaren adaxka bat landatuko dute udal-tertxeko lorategian, eta 12:30ean ekitaldi nagusia egingo dute.

XVIII. mendeko historialari "interesgarrietakoa" izan zen, Orlan Isoird alkatearen berbetan. Bizkaiko historia jaso zuen, eta

bere dokumentazioa erreferentzia da egungo ikerlariarentzat.

Iturrizari buruzko liburuxka idatzi du Gerediagako Jon Irazabalek: "Pertsona polifazetikoaz". 1741eko apirilaren 29an jaio zen Berrizen; 1812ko irailaren 10ean hil zen Munitibarren. Gaztetan hasi zen idazten, aitzak -maisua zen- erakutsita. Hamasei urtegar Mexikora joan eta osabagaz okin ibili zen. Gerora, bueltatu eta fedeari lotuta erromesaldi asko egin zituen. Maisu ere izan zen



Iturrizaren omenezko ekitaldia eta liburuxka aurkeztu dituzte Isoirdek eta Irazabalek.

"XVIII. mendeko historialari interesgarrietakoa izan zen", alkatearen berbetan

Berrizen. "1779tik aurrera paper eta artxibo artean" egin zuen bizitza, Irazabalek dioenez. Baserrien izenak, Ziortzako planoak... "Beri-ri eskerrak dakigu sasoi hartan nesken soka-dantza egiten zela".

Herritarrek Juan Ramon Iturrizaren bizitzaz eta beharraz gehiago jakiteko aukera edukiko dute, datorren astean ipiniko duten erakusketagaz, udaletxeko harrera-gelan. ■ M. Onaindia.



Maite Arrizabalaga (Berriz 1936 Gogoratzen), berbaldian.

Kolpistak herrian sartu zirenekoa oroitu dute

Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak antolaturiko solasaldian batu ziren eguaztenean Gaztelekuan

Intxortako frentea jausi eta kolpistak Durangaldean sartu zirela 75 urte bete ziren apirilaren 25ean. Gaztelekuan solasaldia egin zuten Berrizko gazteek eta sasoi hartan ume edo gazte ziren hamahiru lekukok: frentetik ihesi zetozen gudariak euren gurasoek zelan etxean hartu zituzten, Sarriko baserritik Anbora begira gerra-

ko hegazkinak zelan ikusi zituzten, babeslekuan beldurrez orduak eta orduak eman zituztela... Oroitzapenak eta sentipenak konpartitu zituzten Gerra Zibila bizi izan zutenek gazteekin.

Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak batutako dokumentazioan oinarrituta sortu duten antzezlan eskaini zuten, aldiz, gazteek.

MAÑARIA

Herritarrek edukiko dute preferentzia frontoian

Alokairua merkeago ipini dute mañariarentzat

Frontoiaren erabilera eta alokairua arautzeko ordenantza berria daukate Mañarian. Joan zen barrikuko udalbatzarrean onartu zuten ordezkariak, aho batez. Hemendik aurrera, sei hilabeteko ziklotan alokatu ahalko da pilotalekua, orduka. Erreserbatu ezin izan

Hemendik aurrera, sei hilabeteko ziklotan alokatu ahalko da pilotalekua

dutenek lehentasuna edukiko dute hurrengo zikloa hastean. Gainera, mañariarrek beti edukiko dute preferentzia. Herritarrek 8 euro ordainduko dute alokatutako orduagatik, eta kanpokoei 10 euro.

Areitio, UEMAko ordezkari
Barikuan, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea onartu zuen korporazioak. Bertako ordezkari nor izango den ere erabaki zuten, aho batez: Bilduko Ainara Areitio, Kultura zinegotzia. Mañaria ekainean izango da, ofizialki, UEMAko kide. ■ M. O.

IZURTZA

Konposta egiteko 25 ontzi eskuratu gura ditu udalak

Aldundiaren diru-laguntzaren esperoan daude

Nork bere etxean konposta egiteko aukera eskaini gura du udalak. Horretarako, diru-laguntza eskatu du Bizkaiko Foru Aldundian, eta hile biko epean erantzungo dio. Udalak laguntza jasotzen badu, konposta egiteko 25 ontzi erosi-

ko dituzte, eta interesa erakutsi duten herritarren artean banatu. Ontzi bat gura duenak, udaletxera joan besterik ez dauka, eta interesa agertu. Herritarrek ez dute ordainketarik egin beharko konposterako ontziengatik.

Bere sasoiaren Azterlanek hondakin berrerabilpenerako programa landu zuen udalarentzat eta, ondorioz, teknologia-zentroak egingo du bitartekari lana. Azterlan arduratuko da konposta zelan egin irakasteko ikastaroak antolatzeaz, dudak argitzeaz nahiz jarraipena egiteaz.

Programa ekainean edo uztailan martxan ipintzea gura dute, diru-laguntza jaso eta berehala. Ekimen arrakasta badu hurrengo urterako ontzi gehiago lortzen saiatuko dira. ■ J.D.

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

A. Urreta pedagogoa

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Ainara Urreta Jainaga
PODOLOGIA 188. Elkargokidea



Durungaldean labor

Eskualdeko dantza taldeekin Euskal Jaia, etzi, Elorrion

Durungaldeko dantza taldeekin Euskal Jaia ospatuko dute Elorrion, domekan. Goizean, 11:30ean, kiroldegian batuko dira dantza talde guztiak. Eguerdiaren kalejira hasiko dute herriko kaleetan zehar eta 13:30 inguruan bazkaritara joango dira. Bazkalosteant, 17:00etan, berriro kiroldegian batu eta alardea erakutsiko dute plazan. Elorrioko Besaide taldeak antolatuta du ekimena.

Mugarri Egunerako, hasi da izen-ematea Durangon

Maiatzaren 5erako Mugarri Eguna antolatuta dute Durangon, eta ekimenerako izena eman gura duenak maiatzaren 4ra arteko epea du Pinondo Etxean (informazioa@durango-udala.net). Zapatuan 08:00etan irtengo dute Andra Mariako elizpetik. Dolometa eta Mendigainetik Neberrondora joango dira. Ibilbideak 6,5 kilometro ditu eta lau ordutan osatzea aurreikusita dute.



Garai Jauregiko lanak amaitu dituzte

Guztira, 154.800 euro inguruko inbertsioa egin dute lanetarako. Erabat konpondu dute estalkia, udal arduradunen esanetan. "Beti ere, hasieratik zuen itxura mantenduta". Argitu dutenez, "arbel eta zinkeko estalkia hondatuta zegoen eta, horrexegatik, aldatu beharra zegoen".

ATXONDO

Astelehenetan zarratu egingo dute bankua

"Hainbat kudeaketa internetez egin ahal direla dio BBK-k", Juanjo Nora alkateordearen berbetan



Eguazten eta bariku goizetan zabalduko dute bulegoa.

Astean hiru egunetik bira murriztu dute Atxondoko BBKren zerbitzua. Orain arte, astelehen, eguazten eta ostiraletan eskaintzen zuten kudeaketak aurrez aurre egiteko aukera. Joan zen astetik aurrera, astelehenetan itxita egongo da. Gainerako egun bietako ordutegia honako hau izango da: 08:30etik 14:15era.

BBKren ordezkariek batek eman zion udalari murrizketaren berri. "Arrazoi ekonomikoak eta erre-

kurtsoen optimizazioa". Berba horiek izan ziren jasotako argudioak, Juanjo Nora alkateordearen esanetan.

"Hainbat kudeaketa internet bidez egin daitezkeela diote, eta gainerako gestioak egiteko astean egun bi nahikoak direla. Gainera, Durango edo Elorrioko bulegoetara ere joan daitezkeela diote". EAJk udal legez kexa ofiziala aurkeztearen komenentzia azaldu zuen azken udalbatzarrean. ■ J. D.

DURANGALDEA

Ezkio-Itsasorako argindar linea bertan behera geratu ahal da

Baliteke ez egitea Gueñesetik Ezkio-Itsasora arteko goi tentsioko linea. Durungaldeko bost herri zeharkatu behar zituen: Iurreta, Garai, Berriz, Mallabia eta Zaldibar. Energia azpiegituren aurreko planaren epea amaitu da eta planifikazio berria egiteko, egungo egoera makroekonomikoa eta datozen urteetarako aurreikusita dagoen eskaria kontuan hartzeko agindu dio Espainiako Gobernuak Red Electrica de Españari, dekretu bidez. Ekainaren 31 baino lehen aurkeztu behar dute plan berria.

Egoera makroekonomikoa eta eskaria kontuan hartzeko agindu dute, dekretu bidez

Energia kontsumoa jaitsi egin dela da eskaeraren argudioa: "Gobernuak gero erabakiko du zein azpiegitura lehenetsi eta zein ez. Beraz, oraindik baliteke goi tentsioko linea egitea, denbora batez atzeratu behar izatea edo bertan behera geratzea", Red Electrica Españako ordezkariek berbetan. ■ J. D.

ZALDIBAR

Eskola berriaren proiektua bozkatuko dute herritarrek

Guztira 116 proiektu aurkeztu dituzte eta horien artetik zortzi aukeratuko ditu epaimahai batek

Eskola berria eraikitzeko ideia-lehiaketara aurkezturiko proiektuak ikusgai izango dira, apirilaren 30etik maiatzaren 6ra, Olea kalean (Unzueta altzari denda egon zen lekalean). Bilduren udal-gobernuak azaldu duenez, 116 proposamen jaso dituzte.

Jasotako proiektuen artean, zortzi-hamar egokienak aukera-

tuko ditu epaimahai batek. Epaimahaiaren egongo dira udaleko alderdi politikoen ordezkariek, elkarteak, eta hezkuntza eta hirigintza arloetako teknikariak.

Maiatzaren 5ean eta 6an, Olea kaleko lekalean eman ahaliko dute herritarrek botoa. Azken erabakiaren %10 egongo da herritarren esku. ■ I. E.

GARAI

Udalekuetan izena emateko aukera eman du udalak

Hiru eta hamairu urte artekoentzako udalekuak prestatuko ditu Garaiko Udalak. A zaldutenez, uztailaren 2tik 20ra bitartean garatuko dituzte aisialdirako ekintzak. Udalekuetan parte hartu gura dutenek izena eman behar dute udaletxean, maiatzaren 11 baino lehen.

Matrikularen prezioa kalderatu dute antolatzaileek. Herrian erroldatuek 30 euro ordaindu beharko dute, eta erroldatu bakoek 40 euro.

Ahoan, etxean eta kanpoan Udalekuetan euskararen erabilera sustatuko dute. Eslogana, horregaz lotutakoa da: *Euskara ahoan, etxean eta kanpoan*.

Ordutegiari dagokionez, egunero 09:00etatik 13:00etarako izango da, adierazi dutenez. Edozelan ere, arratsaldeko 17:00ak arte luzatuko dute irteeraren bat egiten dutenetan. ■ M. O.

BATXILERGOA
aurrematrikulak

MAIATZAREN
2TIK 11RA

IES JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoak (D eredu):
Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak
Zientziak eta teknologia
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Kalitateko Hezkuntza
Orientazio pertsonalizatua
Heziketa euskalduna
Irteera eta ekintzak
Teknologia berriak
Ingurumen naturala
Talde txikiak

Olaburu, 3 48215 Iurreta Tel.: 94 681 04 61 e-maila: 015090aa@hezkuntza.net www.oroibogoitia.net

BERBAZ >

“Gaitz neurologikodun umeeek baino oztopo gehiago dituzte euren familiek”

Zesatenjuenaz kooperatiba sortu eta neska gazte baten gaia hartuta, kontzientziazio proiektu bat garatu dute

Itxaso Larrañaga Elgoibarren bizi den 14 urteko neska da. Lau hilabetegaz gabezia neurologiko baten sintomak agertu zitzaizkion, eta ordutik familiak lan handia egin du alabaren bizitza duinago egiteko. Euren eta antzerako egoera bizi duten pertsonen errealitatea ezagutarazteko premia sentitu dute Lore Perez de Albenizek eta Goiuri Aldekoa-Otalorak. Dokumentala grabatzea izan zen lehenengo ideia, eta hortik egitasmo zabalago bat hasi dute.

Zelan sortu zen dokumentalaren ideia?
Itxaso eta Maier [bere ama] ezagutzen genituen, euren pasatutakoa ezagutzen genuen, eta nahi genuen gainontzeko jendeak horrelako umeeak nolakoak diren eta zelako laguntza behar duten jakitea. Ondoan horrelako umerik ez daukanak ez daki zer den hori: familiak zer pasatzen duen, zelakoak diren umeeak, nola komunikatzen diren... Horrela sortu zen istorio hau kontatzeko ideia, jendeari gaitz neurologikoak dituzten umeen eta euren familien egoera ezagutzera emateko, haiekiko gertutasuna sustatu nahian.

Kooperatiba sortu duzue. Zergatik? ‘Zesatenjuenaz’ izena nondik dator?
Proiektuaren barruan, dokumental bat egitea zen pisu gehien zeukan zatia, eta dokumentala egiteko kooperatiba sortu genuen. Aspalditik geneukan gure kontura lanean hasteko gogoia eta hau akuitua izan zen. ‘Zesatenjuenaz’ sarritan esaten dugun esaldi bat da eta gu bion izateko era laburtzen du: horrenbeste gauza edukitzen ditugu egiteko eta esateko, sarritan irteten zaigula esaldia.

Zelako gaixotasuna dauka Itxaso Larrañagak?
Rett sindromea dagozkion ezaugarriak denak dauzka, baina proba genetikoetan ez diote sindrome horri dagokion mutazio genetiko topatu. Rett sindromea



Goiuri Aldekoa-Otalora • Lore Perez de Albeniz •

- Aldekoa-Otalora durangarra da
- Perez de Albeniz elgoibartarra da

“Gaitz neurologikoak dituzten umeeekiko eta familiekiko gertutasuna sustatu gura dugu”

“Itxasok komunikatzeko bere modua garatu du eta esaten diozun dena ulertzen du”

neskatilek bakarrik edukitzen dute, berez, X kromosoman ematen den mutazioa delako eta mutikoak ez direlako jaiotzera iristen. Jaio zenean hasiera bateko proba denak normaltasunaren barruan zegoela adierazten zuten baina lau hilabeterekin burua ondo eusten ez zuela ikusi zuten eta orduan pediatrik neurologoarenera bidali zuen. Hamaika proba egin dizkiote, eta gaur egun oraindik ez dauka diagnostikorik.

Mugak muga bizitza aurrera ateratzen dabil. Zeintzuk izan dira lorpenak?
Familiak lan mordoa egin du umea aurrera ateratzeko: ama Bilbora joan zen bizitzera, bakarrik, Itxaso estimulazio zentro batera eramateko. Estimulazioa txikitik hasi nahi izan zuen, ume hauek ez dutelako besteek bezala aurrera egin. Garunean arazoak dituztenez gorputzak ez du behar bezala erantzuten, eta atrofiak sortu daitezke hezurretan, bizkarrean... Gaur egun laguntzagaz zutik mantentzen da eta ez da gutxi, urteak aurrera egin ahala etxean eduki ahal izateko laguntza handia delako hori. Kognitiboki ere pila bat aurreratu du. Berba ez du egiten, baina komunikatzeko bere modua garatu du, eta ulertu ere, esaten diozun dena ulertzen du.

Zeintzuk dira oztopo nagusiak?
Itxasorentzat? Asko dauzka. Agian Itxasorentzat okerrera muskulu falta da. Ezin da oinez ibili, eta guk uste, berari ibiltzea asko gustatuko zitzaioela. Beti beste baten ardurapean ibili behar izatea da oztopo handiena. Familiarentzako, oztopo askoz gehiago daude, azken finean eurak direlako Itxaso aurrera ate-

ratzen dutenak: jendearen ezjakintasuna, gastuak, oztopo arkitektonikoak... Zerrenda luzea egin daiteke.

Bere gurasoak indartsu daude?
Eredugarria da gurasoek erakusten duten indarra. Lan handia egiten dute aurrera ateratzeko, eta duintasunez “hemen nago eta nire alaba maite dut, begiraiozue” esatera heltzeko. Beste asko, askoz gutxiagorekin itota egongo ginateke.

Zelakoa izango da dokumentala?
Fikzioa, testigantzak eta animazioa erabiliko ditugu. Familiakin konektatu nahi dugu, eta ahal bada, umeekin ere bai. Hezkuntzara bideratutako unitate didaktikoak ere landu gura ditugu. Dokumentaleko materialarekin eskoletan erabiltzeko materiala sortu nahi dugu.

Antzeko kasuen gainera sentsibilizazioa ere zabaldu gura duzue.
Azken finean, horrelako ume bakoitzak eta familia bakoitzak istorio bat dauka, baina egoera denentzat antzerakoa dela pentsatzen dugu: jendearen ezjakintasuna, familien bakardadea, arazo ekonomikoak, komunikatzeko arazoak, beldurrak, pozak... Hori guzti hori bere gain hartzeko gaitasun berezia daukate! Errealitate hori ezagutzera emateko istorio eredugarri bat aukeratu dugu, Itxasorena, bera ezagutzen dugulako. Baina beste edozein istorio ere balioko zukeelakoan gaude, horrelako ume bakoitzaren atzean, maitasun eta autosuperazio istorio hunkigarria dagoelako. ■ A.Ugalde

<http://emadazueskua.blogspot.com.es/>





Juan Ramon Iturriza
historialariari oroimen ekitaldia
bere heriotzaren 200. urteurrenean

2012 apirilak 29 Berrizko elizatean

12:00etan

J. R. Iturrizaren oroimeneko
arbolaren landaketa udaletxeko loratokian

12:20etan

J.R. Iturrizari buruzko
erakusketaren irekiera udaletxeko sarreran

12:30etan

Oroimen ekitaldia udaletxeko batzargelan



Erakusketa apirilaren 29tik maiatzaren 6ra
izango da zabalik.
Udaletxeko ordutegitik gain:
Maiatzak 1, 5 eta 6an 12:00etatik 14:00etara.
Maiatzak 2, 3 eta 4an 18:00etatik 20:00etara.



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Pobre zoriontsuak

Politikarien lana aberatsen mesederako txiroen botoa lortzea zela esan zuen baten batek. Garai hauetan inoiz baino argiago ikus daiteke hori. Grezia eta Espainia bezalako herrietan, herritarrek aukeratutako gobernua, 'Europatik' datozen neurriak inposatzen ari dira. Europako banku handiek, Europako enpresa handiek eta Europako aberats handienek inposatutako neurriak: azken finean, gehiago, gogorrago, eta baldintza eskasagoetan lan egin eta bizi beharko dugu, 'haiek' gehiago irabazi eta hobeto bizitzeko. Jende xumea gehiago gara munduan, baina ez gara ados jartzen 'goiko' horiei boterea kentzeko eta mundu justuago batean bizitzeko. Eta ez da oraingo kontua. Hala ere, badut Euskal Herria bezalako lekuetan esperantza txiki bat etorkizunerako. Ea bada.

Baina gauzak horrela diren bitartean, bizimodu eta pentsakera aldatzeko prest nago ni. Beharbada ezin izango dut 150 zaldiko kotxe berria erosi. Ezin izango dut 8 MPixelexko internet-dun smartphonea eduki. Platera janariz beharrean irudimenez betetzen duten jatetxeak ahaztu beharko ditut, eta ezin izango dut telebistan iragartzen duten alkandora fashion hori erosi. Izan ere, zoriontsu izateko horiek guztiak behar izatea lortu dute. Gure bizitzek zentzua izan dezaten, gai materialak pilatu behar izatea. Eta kotxe berria, mobil berria, etxe berria eta azal berria ez badaukagu, ezer ez garela sentiaraztea. Eta noski, horretarako, lan asko egin behar izatea beraien enpresetan. Orain, gainera, are gehiago. Horregatik, ni prest nago nire kotxe zaharrean ibiltzeko. Txuri beltzezko argazkiak ateratzeko. Nire amaren indabak jateko eta amamak egindako jertsea janzteko.

Izan gaitezen ezer ez daukaten pobre zoriontsuak.

Sugar Perez Zallo - Abadiño

Kantatu gurekin

Mendi garai eta itsaso zabalen artean, udaberriaren loreak bezala loratutako herri txiki batean bizi zen Izarne.

Herri hura goibela zen ordea, herritar guztiak triste-triste bizi ziren, baso, mendi eta itsasoetako animalia guztiak txioka, marruka, uluka eta orroka zebiltzan artean, beraiek ez zekitelako soinurik ateratzen.

Inork ez zuen goizetan egun on esaten, inork ez zuen nola sentitzen zen esaten eta inork ez zuen zer nahi zuen esaten, ez zuten esaten ez zekitelako esaten, eta horrek goibeltzen zituen.

Izarne neska alaia zen ordea eta ez zitzaion gustatzen goibel egotea, irribarre egitea baizik, eta hortaz, herri hartako arazo konpondu nahirik basora joan zen laguntza bila.

Bidean aurrera zihoala otsoa hurreratu zitzaion lehenengo Izarneri. Begiratu zion eta honek begirada itzuli zion, eta hala-koto batean ulu luze luze-luuuuz bat bota zuen otsoak. Izarne harrituta geratu zen ez baitzuen sekula soinurik entzun. Alabaina otsoaren ulua tristeegia iruditu zitzaion, harekin ez zuen herritarrak alai bizitzea lortuko. Beraz otsoa agurtu eta aurrera jo zuen.

Handik gutxira bele talde bat inguratu zitzaion eta ia batabatean karraka hasi ziren guztiak. Izarne izutu zen ia. Oso ozen entzuten zituen soinua haiek bata bestearen gaintetik, inork ez zuen beste inor errespetatzen, eta Izarneri iruditu zitzaion herrian ezingo luketela horrela bizi. Hala bada, korrika egin zuen alde handik.

Hala zihoala, derrepentean, zuhaitz baten adarraren gainean, urretxindor bat ikusi zuen. Izarneri izugarri polita iruditu zitzaion urretxindorra baina are gehiago haren kantua, bizia eta alaia, eta beraz urretxindorarengana hurreratu eta haren melodia hura ikasten saiatu zen. Baina Izarne ezin zuen melodia hura oroitu, bazuela uste zuenean berriz ahazten zitzaion, eta berriz hutsetik ikasten hastera... Jope!

Gutxira ideia bat otu zitzaion Izarneri ordea, urretxindorren kantuko soinua bakoitza ezagutzen zituen gauza eta elementu bakoitzarekin lotzen hasi zen. Hala, soinua bat bere amarekin lotu zuen, beste bat aitarekin, hurrengo bat bere neba txikiarekin eta bere herria eta herrikideekin, kantu guztia buruz ikasi arte.

Korrika itzuli zen orduan herrira eta herritar guztiak plazan bildu zituen, eta behin guztiak han zeudela bere amaz oroitu zen lehenengo, bere aitaz ondoren, bere nebaz, herriaz eta herrikideez, eta baratzeke tomate gorriez, eta medikuaren betaurrekoek, eta... Eta horrela urretxindorren kantua kantatzeaz bat, Izarne opari liezaiokeen oparirik ederrena oparitu zion herriari, sentimenduak adierazteko era bat, zer nahi zuen esateko gaitasuna, hizkuntza bat eta horrekin batera alaitasuna.

Eta kantu hark ere izen bat behar zuenez eta ezagutzen zituen hitz guztiak hartuta zeudenez ba bat sortzea beste aukerarik ez zuen izan: "Gure herriaren kantu honi euskara esango diogu!". Eta behin kantatzen ikasita ez ziren sekula isildu.

Kimuak Aisialdi Elkarteak, bere sorreratik, euskara eta euskal kultura sustatzea izan du helburu. Horregatik lantzen dugu euskara, burutzen ditugun jarduerak guztietan, gure nortasunerako horren funtsezko den balio bezala.

Uztailaren 16tik 28ra, bederatzi eta hamalau urte bitarteko haurrentzat udaleku finko eta finko ibiltariak antolatuta ditugu. Ez dezagun gure herriaren kantua ahaztu, animatu zaitezte, kantatu gurekin!

Kimuak Aisialdi Elkarteak

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Aurrekontua edo desaurrekontua

Legeak dio, udal aurrekontua Osoko Bilkurari aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu behar zaiola, aurrekontua eztabaidatu eta, horrela erabakitzen bada, onartzeko. Horregatik oposizioari dokumentazioa urteko azken hiruhilekoan zehar ematen hasi behar dute.

Aste honetan aurrekontuen zirriborroa aurkeztu digute, ia maiatzean gaude eta zirriborroa ez da datorren urterako baizik eta aurtengo urterako. Durangoko udalgobernu taldea berriro berandu dabil!

Aste honetan aurrekontuen zirriborroa aurkeztu digute. EAJ berriro berandu dabil

Orain gure txanda da, aurrekontuen zuzenketak aurkeztu behar ditugu eta gero denon artean eztabaidatu. Baina euren jarrera ez da oposizioarekin akordioetara iristekoa, nabaritzen da!

Iazko aurrekontuak onartu genituen, gure ustez Durangorako akordio ona lortu genuelako. Baina urte osoan edozer behar genuenean, zabor-edu-

Alkateak dio 950.000 euroko soberakina dagoela. Zenbat zor eta kreditu ditu bete gabe?

kiontzi berriak, garbiketa gehiago, enplegu programak edo iazko akordioan hautsitako puntuak eskatu genituenean, beti dirurik ez zegoela erantzuten ziguten. Asteon gobernu taldeak iazko aurrekontuen likidazioa eman digu, eta alkateak dio Udalak 950.000 euro inguruko soberakina daukala, soberakina dauka!! Ahoa bete hortz utzi nau. Eta zenbat zor, zenbat kreditu eta zenbat akordio dauka bete gabe? Datuei itxura aldatu die. Datu guztiak ondo eta argi eman behar dira.

Krisialdiaren aurrean berandu eta txarto. Hau zer da? Aurrekontua edo desaurrekontua?

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Laguntzaileak:

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko apirilaren 27a
10. urtea - 456 zk.

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onandia,
Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzaileak: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Juanra de la Cruz eta Zalao Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokultura

KULTURA[>]

DF BERTSOZALE ESKOLA > PLATERUENEAN



Bertsolari eta bertsozaleen intereseko gaiak landuko dituzte, bost berbalditan. Hori lotu dute antolatzaileek, Gorka Lazkanok eta Eneko Abasolo *Abarkas*-ek, aurtengo DF Bertsozale Eskolan lantzeko. Plateruena kafe antzokian izango dira saioak, eguenetan. Aurtengo saioetan parte hartu gura duenak, maiatzaren 3ra arte eman ahalko du izena.

“Lantzean behin bertsoan jarduteko batzen garen moduan, egitarau hau pentsatzeko batu gara Eneko, Erika eta neu”, kontatu du Lazkanok. Bertsoari, gai-jartzailearen lanari eta epailearen ardurei buruz berba egingo dute lau saiotan, denak maiatzean zehar, eta bertso-trama bategaz emango dute ikastaroa amaituztat, maiatzaren 31n.

Lujanbiogaz abiatuko dute aurtengo bertsozale eskola

Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Gorka Lazkanok bertsolariak aritu dira Platerueneko aurtengo DF Bertsozale Eskolaren jardunaldiak antolatzen; bost saio izango dira, eta maiatzaren 3ra arte eman daiteke izena

Bertsoari, epailearen ardurei eta gai-jartzaileari buruz jardungo dute

Lazkanok eta *Abarkas*-ek azaldu dutenez, gaiak zeintzuk izango diren erabaki eta gero, euren hurrengo egiteko hizlariak lortzea izan da: “Gai hori jorrazteko zein pertsona izan litekeen aipose-na pentsatu dugu”. Hitzaldietarako, bi bertsolari eta bi gai-jartzaile

“Uste dugu bertsoaren lanketan maila gorenean dagoela Maialen Lujanbio”

le gonbidatu dituzte, eta azken saioan, hiru bertsolari kantatuko dute. Esaterako, umorea izango da maiatzaren 10eko ikasgaia, eta Unai Iturriaga bertsolaria izango da berbaldiaren arduraduna, “idea jenialak sortzen maisua den durangarra”.

Baina, Maialen Lujanbiok zabalduko du egitaraua, maiatzaren 5ean. “Uste dugu bertsoaren lanketan maila gorenean dagoela Maialen Lujanbio: bere bertso-kerari erreparatuta ikusten da zenbat lan egiteko gaitasuna daukan”, azpimarratu du Lazkanok. Dioenez, Maialen Lujanbioren hitzaldiak, “bertsolari batek gaitasun hori guztia nondik ateratzen duen jakiten lagunduko du”.



Maiatzaren 3an, 19:30ean, Plateruenean

Maialen Lujanbio, Euskal Herriko txapeladuna

‘10 segundo, 11 erabaki. Nola lan ordu luzeak istante laburrean sarrarazi?’



Maiatzaren 10ean, 19:30ean, Plateruenean

Unai Iturriaga, Bertsolaria

‘Umorea epaitzen: zeri egiten diogu barre txapelketetan?’

Maiatzaren 17an, 19:30ean, Plateruenean

Asier Ibaibarriaga, Gai-jartzailea eta epailea

‘Bertsoa epaitu liteke?’



Maiatzaren 24an, 19:30ean, Plateruenean

Josu Goikoetxea, Gai-jartzailea

Bertso trama prestatzen

Maiatzaren 31n, 20:00etan, Plateruenean

Bertso trama

Igor Elortza, Jon Maia eta Oihana Bartra, bertsolariak



Trama, prestatu eta egin

Eta bertsoa, epaitu liteke? “Aspaldiko debatea da”, antolatzaileek onartu dutenez. Horixe da Asier Ibaibarriagak landuko duen gaia. Bera ere epaile lanetan aritutakoa da, eta erantzunak ematen ahaleginduko da maiatzaren 17an.

Hurrengo saioan, bertso-trama bat prestatuko dute parte-hartzaileek, Josu Goikoetxea gai-jartzailearen laguntzagaz, eta jardunaldien azken egunean praktikan ipiniko dute prestatutakoa: Oihana Bartra, Igor Elortza eta Jon Maia ariko dira bertso-traman, maiatzaren 31n. ■ I. Esteban

DANTZA>

L'atelier eskolakoek antolatu dituzte Dantzaren Egunerako emanaldiak

Bihar izango da Dantzaren Nazioarteko Eguna; Durangoko zazpi gunetan ariko dira dantzan, egun osoan zehar

Durangoko zazpi gune izango dira dantzarietako oholtza. Udaltxean, Sanagustinalden, Plateruenean, Ezkurdin, Andra Marian eta Goienkalen jardungo dute, 11:30ean hasi eta 22:00etara arteko programazioan.

Dantza eskolako txikien 'flashmob' bategaz abiatuko dute eguna, 11:30ean



Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat emanaldi antolatu dituzte bihar. Durangoko L'atelier dantza eskolakoek hartu dute egun osoarako egitaraua antolatzeko ardura.

Dantza eskolako txikien *Flashmob* bategaz abiatuko dute eguna: udaletxeko plaza batuko dira, 11:30ean, ekintza jendetsua egiteko asmoagaz. Goizeko gainontzeko emanaldiak, Sanagustinalden izango dira: barra handian zein txikian jardungo dute L'atelier-eko balletoko kideek.

Musikariekin eta abeslariarekin
Plateruenean bazkalduko dute eguerdian dantzariak, senideek eta lagunek. Arratsaldean, era askotako dantzaldiak eskainiko dituzte. Jada iluntzean, Bartolome Ertzilla musika eskolako abesbatzak eta Bogorditsie abesbatzak lagunduta jardungo dute eskolako dantzariak, 20:00etan, Andra Marian. Leku beretik abiatuko dute pintxopoteo berezia, 21:00etan: hip-hopa, funky eta breakdance-a dantzatzeko dute bidean. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jon Irazabal
Gerediagako kidea



Benita Uribarrena

1922ko martxoaren 3an jaio zen Durangon Benita Uribarrena. Hamalau urte zuelarik guda sufritu zuen, eta suposatzekoa da Durangoko bonbardaketa ere baietz. Urte hartako maiatzean beste milaka umerekin batera Habana itsasontzian Frantziarako bidea hartu zuen. Normandiara bidali zuten eta bertan bizi izan zen urte bi familia batekin. 1939ko irailean ama eta neba-arrebekin bildu zen Toulousen.

Guda batetik ihesean, beste baten barneratu ziren eta ez ziren bestaldera begira gelditu. Erresistentzian sartu zen Benita. Hasiera batean, Toulouseko gartzelan atxilotatutako kideei laguntza eskaintzen, jarraian *maqui* talde desberdinen artean korreo funtzioak betetzen, eta gero Gallac-eko (Tarn) talde gerrilariaren artean funtzioetan. Bere ahizpa Nati ere talde honetan lan berdinean aritu zen. Tarn-eko gerrilari asko espaniar errepublikanoak ziren.

1944ko uztailaren 13an St. Paul de Fenouillet-en atxilotu zuen Montpellier-eko poliziako talde bereziak. Nahiz eta hainbat itaunketa sufritu, ez zuten beregandik informaziorik lortu eta Perpignan-eko kartzelara eraman zuten. Abuztuaren 16an, Perpignandik askatu baino hamahiru egun lehenago, kartzelako zuzendariaren laguntzarekin ihes egitea lortu zuten berak eta beste hiru gerrilari. Aske irteetan, Toulouse-eko gerrilari taldean sartu zen. Gero FFIko 153 dibisiara destinatu zuten. 1945eko martxoan, 23 urteaz ia bizitza guztia askatasunaren alde eta faxismoaren aurka borrokatu ondoren, desmobilizatu egin zuten. Ezkondu eta gero, Benita Uribarrenak Benita Uster-en nortasuna hartu zuen.

2000. urtean Frantziako gobernuak "faxismoaren aurka egindako lanarengatik" omendu zuen eta iazko maiatzean Le Soler-en, bera bizi izan zen herrian, beste borrokalari batzuekin batera udalaren omena ere jaso zuen. Hilabete batzuk geroago, urriaren 12an zendu zen. Aintza eta ohore Benita!

Post-data: Norbaitek ezagutzen du senitartekorik edo beste berririk? Eskertuko da informazioa: jon@gerediaga.com

MUSIKA>

Gazte Interpretuen saria jaso dute Durangoko hiru ikaslek

Jone Erzilla, Lexuri Armentia eta Gorka Pagonabarra saritu egin dituzte Euskadi 2012 Gazte Interpretuen lehiaketan. Martxoaren 30ean eta 31n egin zen lehiaketa, Gas-teizko Jesus Guridi kontserbatorioan. Durangoko musika eskolako ikasleak dira hirurak.

Haize instrumentuekin nabarmendu dira hiru gazteak, metal, saxofoi eta txistuarekin

Haize instrumentuekin nabarmendu dira hiru gazteak, metal saxofoi eta txistuarekin: Jone Erzillak metal eta haize instrumentuen espezialitateko lehenengo saria jaso zuen; Lexuri Armentia saxofoi ikasleak ohorezko aipamena jaso zuen; eta Gorka Pagonabarrari, txistu espezialitateko sari nagusia eman zioten. ■ I.E.

ERAKUSKETA>

Hilarriei egindako argazkiak egongo dira ikusgai Iturrin

Argazkilaritza artistikoaren bidez gizarteratu gura du egileak bere ikerketa

Pedro Zarrabeitiak Euskal Herriko hilarriei egindako argazkiak bildu dituzte Elorrioko Iturri kultur etxeko erakusketan. Maiatzaren 19ra arte izango da argazki bilduma hau Elorrion ikusteko aukera.



Euskal etnografia eta artea dira Zarrabeitiaren zaletasunak. "Irudien, sinboloen eta sentimenduen adierazpenak bilatzen", horretan jardun du Euskal Herriko zazpi lurraldeetan azken urteotan, eta argazkilaritza artistikoaren bitartez gizarteratu gura ditu bere aurkikuntzak.

Euskal hilarrien inguruko ikerlan zorrotza egin du. Batutakoan lagin bat da Elorrion ikusgai dagoena: hileta-errituetatik haratago, datu etnologikoen, historikoen eta artistikoen bilduma. ■ I.E.

Euskal hilarrien inguruko ikerlan zorrotza egin du. Lagin bat da ikusgai dagoena

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

2. GREATS HITS GAUA KONTZERTUAK. 6 euro (5+1 zozketa)

MAIATZAK 3 19:30ean DF BERTSOZALE ESKOLA Izen ematea maiatzaren 3a arte: 10 euro

MAIATZAK 4 22:00etan JERO ROMERO KONTZERTUA. Sarrera: 17,30-20 euro

MAIATZAK 5 19:00etan HAUR KANTARI TXAPELKETA BIZKAIKO KANPORAKETA. Sarrera doan

Eguneko menua astelehenetik larunbatera Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

ROJO AL AGUA Kabia-Gaitzerdi Teatro

Apirilak 29 - 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Hitz liburu-denda

artekalea 14, durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

DURANGO

ERROTARITXUENA

Arriskurik gabeko aukera bat

Bezera izatearen lasaitasunarekin

- Sustapenaren finantzaketa ez delako arazo bat.
- Bezeraoren finantzaketa idatziz bermatzen delako.
- Eskatutako finantzaketen %90 ematen delako.
- 1. faseko emaitza ezagutzen duzulako.
- Obra aurrera doa 2013ko abenduan zure etxebizitza eduki dezazun.
- Sinatzen duzuna ezagutzen duzulako.
- BEZEROA zarela, bestelako trabarik gabe.

%100 arte finantzatutako erosketak:

Sabadell Guipuzcoano

B S



2 log. 199.000€-tik aurrera + BEZ

Eraikitzen ari garen promozioa. Informazio hau aldatu egin daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Apirilaren 21eko 515/89 E.D. an eskatzen den eta publizitate honen barruan ageri ez den informazio guztia interesatuen esku dago gure merkataritza-bulegoetan.

www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIAK



- Amaia Salazar
- Nukleo ileapaindegia dauka Elorrión



Amoniako bako tindagaiak

Elorrioko Nukleo ileapaindegiko Amaia Salazarrek amoniako bako tindagai berriez egin du berba. Abantailak zeintzuk diren azaldu du.

Tindagai berri hauek zer abantaila daukate? Aurrez sortutako arazoak desagertzen al dira?

Amoniako bako tindagai berriek kalte gutxiago eragingo digute ilean eta buruan. Gainera, ileak kalitate hobea edukiko du: distira gehiago, iraupen luzeagoa... Orain artean, bazeuden amoniako bako tindagai batzuk, baina euren kalitatea ez zen onena. Arazoak ekartzen zituzten. Adibidez, ile urdinak ez zituzten estaltzen, eta jendea ez zegoen pozik. Tindagai berriek ez dute halako arazorik ekartzen: ezin hobeto tindatzen dute eta emaitza oso ona da beti.

Koloreei dagokienez, zein da tindagai berrien berritasuna? Bezeroa modan egotea ahalbidetzen dute? Orain artean, tindagai mota hauen kolore-gama oso itxia zen, eta horri dagokionez asko zabaldu dela esango nuke. Tindagai berriak erabilita, estilo gaurkotua eduki eta modan egoteko aukera izango dugu.

Amoniako barik, fisikoki zer da gehien igarri daitekeena? Amoniako bakoak izanda, tindagaiak sortzen duen azkura asko murrizten dela nabarmenduko nuke. Bestalde, ezkatatzea ere gutxiagotzen dela ikusiko dugu. Estetikoez gainera, tindagai berriek beste abantaila batzuk ere badituzte, beraz.

ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Nerea Masaje eta Estetika Zentroa
Nerea Mallabiarrena • Merche Garcia
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAKO masaje indiarrek antiestres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

synthesis

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

@anbotokirola

KIROLAK >

“Bero handia, kilometro asko, hare... Lasterketa berez sufrimendu handia da”



Zalua Fuertes

Marokon hasiko den Milenio Titan Desert lasterketan parte hartuko dute Egoitz Murgoitio eta David Etxebarria txirindulariek. Mendi-bizikletan. Desertuan eta Atlas mendietan. Sei etapa. 680 kilometro. Lehenengoz parte hartuko dute, biek ala biek eta esperientzia bizitzeko gogoz daude.

Zeintzuk izango dira zuen taldeen helburuak?

David Etxebarria: Roberto Herasek lasterketa irabazi dezan lan egitea izango da gure zeregina.
Egoitz Murgoitio: Gure helburua justu kontrakoa izango da; Herasek ez irabaztea eta gure taldekoren batek irabazi dezan ahalegintzea (barreak).

Zelan sortu zitzaizuen lasterketa honetan parte hartzeko aukera?

D. E.: ONCE taldeko txirindularien afari batean geundela iaz lasterketa hori lehiatu zuen Marcos Serranori komentatu nion niri ere gustatuko litzaidakeela probatzea. Handik denbora batera Roberto Herasen deia jaso nuen. Koplast-Unidos talde

amateurreko zuzendaria ere banaizenez, egutegia begiratu nuen eta egun horietan lasterketarik ez geneukanez, baiezkoa eman nion.

E. M.: Lasterketa, aurretik ere ezagutzen nuen eta beti izan dut noizbait lehiari aritzeko interesa. Andoni Balboak [taldeko ordezkarietako batek] eta Jose Luis de Santosek [Espainiako selekziozko hautatzaileak] komentatu zidaten eta onartu egin nuen.

Zer dakizue lasterketari buruz?

D. E.: la denek diote oso gogorra dela.

E. M.: Niri ere gogorra dela esan didate. Kilometro asko, bero handia, hareak gorputzeko atalak narriatu ditzake... Lasterketa

“Badago galtzeko arriskua aurrean dabilzanen artean. GPSa erabili daiteke”

“Gurpiletan dago aldea. Abiadura bizietan hobeak dira gurpil hauek”

Egoitz Murgoitio

Adina: 28 urte
Altuera: 1,83 metro
Pisua: 72 kilo

Taldea: Lider Import
Taldeakideak: Milton Ramos (iaz bigarren) eta Israel Nuñez (2009ko irabazlea).

David Etxebarria

Adina: 38 urte
Altuera: 1,64 metro
Pisua: 69 kilo

Taldea: GAES
Taldeakideak: Roberto Heras (hiru bider irabazi du) eta Raul Hernandez

berez sufrimendu handia bada, zauriak sortuz gero zer esanik ez.
D. E.: Zauriak arazo handia izan daitezke. Beroa ere ez zait gustatzen. Profesionala nintzanean euritan hobeto ibiltzen nintzen. Tenperaturarena erronka bat izango da niretzako.

Lehenengo aldia duzue eta irabazteko faborito diren talde banatan zaudete. Ez al da erantzukizun handia?

D. E.: Ez niretzako. Bai nik eta bai taldeak argi dugu zer eman dezakedan. Herasi esan nion hasierako kilometroetan lagundu nezakeela, baina orduetik aurrera ezetz. Fisikoki ez nago hasi eta amaitu laguntzeko moduan.

E. M.: Nahi nukeen bezain ondo ez naiz helduko, baina ondo nagoela uste dut, entrenamendu onak egin ditut eta badut zelantzaiteko erantzukizuna. Nire aldeko apustua egin dute lasterketan lehiatzeko nahiz hiruro artean lan ona egiteko.

GAES-en argi dago nor den taldeko burua. Lider Import-en?

E. M.: Printzipioz, lasterketa hasi aurretik, ez dago taldebururik. Denok maila berean goaz. Lasterketak berak ezarriko ditu buruak eta laguntzaileak.

Zelan prestatu duzue lasterketa?

D. E.: Hiru hile daramatzat entrenatzen: hasieran korrika eta pilotalekuan ere bai; gerora bizikletan, astean bost egunetan, egunero hiru-lau orduz. Ez nago espero bezain ondo, baina bai beldur barik joateko adina prestatuta.

E. M.: Ziklo kros denboraldia amaitu eta hilabeteko atsedena hartu nuen. Gero errepidean hasi nintzen bolumena hartzeko. Azken hiru asteetan *mountain*

bike-agaz aritu naiz batez ere, bizikletara egiteko.

Bizikletak ohikoak dira?

E. M.: Gurpiletan dago aldea; 26 zentimetroko erradioa dutenak beharrean, 29koak eroango ditugu. Lasterketa laua da, taldean egitekoa eta abiadura bizietan jarduteko hobeak omen dira gurpil hauek.

Galtzeko arriskurik badago?

E. M.: Bai, badago, batez ere aurrean dabilzanen artean. GPSa erabili daiteke. Aurreko urteetan, izan dira galdu direnak, baina aurrean horrelakorik ez gertatzea espero dut, guri ez behintzat (biek egin dute barre)

Zer errendimendu eskaini dezake Egoitz Murgoitio?

D. E.: Aurrean egongo da, seguru. Sei etapetik etapa bat bereziki gogorra da. Horrelako egunetan esperientziak asko balio du eta GPSa ondo erabiltzen jakitea garrantzitsua da. Hori du kontratan. Bestela seguru nago aurrean ibiliko dena.

Zer errendimendu eskaini dezake David Etxebarria?

E. M.: Ni seguru nago berak dioena baino hobeto dagoela eta gerra emango digula.

Zer bizipen bizita itzuli gurako zenukete?

D. V.: Lehiatzeaz gainera, esperientzia berria bizitzea gura dut. Lasterketa osteko giroa, iluntzekoa, ezerezaren erdian 400 lagun... Hori gurtzia bizi nahi dut.

E. M.: Beste hainbeste. Eguneko sufrimenduaren ondoren egongo da bromarako tartea ere, seguru. ■ J.Derteano

> Bideoa: www.anboto.org

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan
saltsan.com

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA ADADIÑO

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULEI, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41



Euren erreperitorio zabala eskainiko dute Melerok eta Morenok.

Motor gidari onenak ariko dira goi mailako arrapaletan

'Freestyle' ikuskizuna antolatu dute Traña-Matienan, jaien barruan

Traña-Matienako jaien barruan estreinatuko dute, apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean, gerora Bilbo, Donostia eta Gasteizko aurtengo aste nagusietan erakutsiko duten *freestyle* ikuskizun berbera.

"Goi mailakoak izango dira motor pilotuak zein arrapalak", azaldu du Aitor Martinez gidariak. Maikel Melero eta Pedro Moreno pilotuak etorriko dira, *freestyle* modalitatean gaur

egun Espainian dauden piloturik onenak, Dani Torresen atzetik. Arrapalak, Madrilgo zezen plazan erabilitakoak dira, baita Gasteizko Buesa Arena eraberritua inauguratzeko ekitaldian ere: "Normalean 30 euro balio duen ikuskizuna dohainik egongo da Matienako plazan".

Lehenengo saioa astelehen gauean egingo dute, 23:00etatik aurrera, ekitaldirako beren beregi atondutako argiztapena-

gaz. Hurrengo egunean, 12:30etik 13:30era izango da bigarren saioa, plazan.

Martitzeneko saioak irauten duen artean lasterketa ofiziale-tako hogei motor eta autorekin osatutako erakusketa ere egongo da, pilotalekuan: 80ko eta 90eko hamarkadako klasikoak batuko dituzte, baita gaur egungo autoak eta motorrak ere, Igor Urien eta Iban Tarsicio gidariek, esaterako. ■ J. D.

Iker Irribarria, ikuskizuna emateko prest pilota finalean

16 urte gaz heldu da gazteen arteko finalera



Ibarrondok dena ondo egin beharko du aukerak izateko. K.A.

Martitzenean, 17:00etan, San Prudentzio pilota txapelketako finalak jokatuko dira gazteetan eta nagusietan Traña-Matienako pilotalekuan. Final biak lau t'erdia-aren barruan izango dira.

Gazteen mailako finalak ikusmina sortu du, hamasei urte izanagatik (kadetea oraindik) finalera heltzea lortu duelako Iker Irribarria gipuzkoarrak. Aurrez aurre Arrankudiagako Ibarrondo izango du. Irribarria faborito argia da. 1,85 metroko garaieragaz, ezkerre da, baina eskuinarekin ere dotore moldatzen da eta esku biek astintzen du indartsu pilota. Airez ere badaki Sebastian Gonzalezen antzerako ezker boleak egiten.

Nagusietan Rober Uriarte eta Igor Azpiri lehiatuko dira. Azpiri izango da faborito. ■ J.D.

ADITUAREN TXOKOA

Iker Saenz de la Cuesta
Areto futbol entrenatzailea



Egoera larrian

Orain arte Durangaldeko areto futboleko izan dugun sasoi oparoa amaitzeaz dago. Izan ere, gure lehen lehen taldeek ez dute espero genuen urte ona izan. Ahaztuta ditugun azken urteotan Sasikoak, Elorriokok edo Kurutzia-azken lortutako igoerak, edota Kurutzia-azken neskek lortutako Bizkaiko Kopa. Aste honetan, eskualdeko taldeak begiztatze-ko, ligako azken postuetara begiratu behar dugu.

Hirugarren mailan azken bi sailkatuak Elorrioko eta Sasikoa dira, eta mirari bat behar da bietako bat ez jaisteko. Nahiz eta azken partiduetan Sasikoak nabarmen hobetu duen, bere aurretik dagoen taldea bederatzita puntura dago (liga amaitzeko lau partiduren faltan); horiek puntu asko dira egoerari buelta emateko. Elorrioko Buskantza aldiz, azken tokian dago, eta geratzen diren partiduetan itxura polita emateak izan beharko luke euren lana.

Euskal ligan egoera antzerakoa da, eta azken bi tokietan daude Sasikoa B eta Kurutzia-azken. Sasikoa Bk aukera gutxi ditu jaitsieratik libratzeko, nahiz eta Kurutzia-azken aurretik egon, Sasikoa Aren jaitsierak Sasikoa Brena ere badakarrelako automatikoki. Kurutzia-azken kasuan, Sasikoa B aurreratzea du aukera bakarra, aurreko talde bat bakarrik jaisten delako Maila gorenera. Horretarako gutxienez sei puntu lortu beharko ditu azken lau partiduetan (Sasikoak lau puntu gehiago ditu baina bi jardunaldi gehiagorekin), eta urtean zehar markagailuekin falta izan zaien zortea aldatzeko gogoz eta kemenez jokatu beharko dute. Denboraldi oparagoen zain... Animo guztie!

Gaur hasiko dute pilotan 'Peter' oroitzeko txapelketa

Nagusietan Uriona eta Ajuria txapela berrizteko faboritoen artean daude

Gaur hasiko da Jose Maria Agirre 'Peter'-en oroimenezko txapelketa. Hirugarren aldia egingo du aurreko. Oraingoan ere, kanporaketa bidezko sistema-gaz jokatuko dute, eta beraz, partidu bakoitzan final baten antzekoa izango da.

Maila bi antolatu dituzte, 22 urtez azpikoa eta nagusiak, eta maila bakoitzean zortzina bikotek jardungo dute. Barikuro, 19:30ean, partidu bi jokatuko dituzte Ezkurdi Jai-Alai pilo-

talekuan. Finalak ekainaren 9an izango dira.

Gaur neurketa bi daude: 22 urtez azpikoa Azkarai-Gardoki eta Bizkarra Agirre bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Nagusietan, berriz, Agirrezabal-Zabala eta Zuheros-Kantxo bikoteek.

Iaz nagusietan txapeldun izan ziren Urionak eta Ajuriak aurreko ere bikotea osatuko dute, eta txapelketa irabazteko faboritoen artean daude. ■ J.D.

(AZ)
KOMUNIKAZIOA

DISEINU GRAFIKOA
ETA WEB DISEINUA

LOGOTIPOAK KATALOGOAK EGUTEGIAK FLYER
STAND GONBIDAPENAK ROLLUP KAMISETAK
KARTELAK ALDIZKARIAK ONLINE DENDAK
ENPRESAREN WEBGUNE INFORMAZIO BLOGAK
AZOKA ERAKUSKETEN DISEINUA

DEITU KONPROMISO BARIKIII

(i) Tel.: 681 305 831 azkomunikazioa@gmail.com

momotxo
t a b e r n a

plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

URTXIINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

Arrike
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Club Hípico

Dukiena-BERRIZ
www.dukiena.com

• INSTALAZIOAK:

- 10 hektarea dituen lursailean kokatua.
- 70x40 m-tako hare pista, 40x20 m-tako zaldi-heztegia, 25 box, sokadun pista, korta eta dutxak.
- Errekatxo eta zuhaitzi batez inguratutako landa apartak zaldien eta poney-en atsedenaldirako.

• FORMAKUNTZA:

- Eskola-kirolak, udako ikastaroak eta hizkuntzak.
- Galopa titulaziorako prestakuntza, 1etik 7ra, zaldizkoentzako.
- 1. eta 2. mailako Zaldiketa Teknikorako sarrera probarako eta titulaziorako prestakuntza.

• AHOLKULARITZA:

- Zaldiak erosteko eta balioztatzerako aholkularitza juridikoa.

• JARDUERAK:

- Zaldiketa praktikatzeko aukera, hastapenetatik, klubak dituen zaldi eta poniekin, goreneko mailara arte, norberaren zaldiarekin.
- Itzuliak, jolasak, jinkanak eta lehiaketak, nagusi eta umeentzako.
- Oztopo-lasterketa, *doma* eta *raid*-a dira gure zalditegiaren kirol berezitasunak.

ORDUTEGIAK:
Egunero 09:00etatik 20:00etara, astelehenetan izan ezik.

TARIFAK:

- Eskolako zaldiekin:
- Ordubete pertsonako: 25 euro / Taldeka: 20 euro
- Norberaren zaldiarekin:
- Hilean 100 euro / klase solteak: 15 euro
- Pupilajeak: 300 euro oinarrizkoa.

BONO BEREZIAK:
Hilean 65 euro (astean klase bat, gainontzekoak 15 euro) Hamar klase: 135 euro.

Eitua auzoa, z/g - Dukiena baserria - Berriz - Tel.: 638 12 70 60 - 652 74 58 32 - dukiena@gmail.com



Mailari eustea du jokoan DRTk Asturiasen

Errugbiko Ohorezko B mailan jarraitzeko, maila bat beherago dabilen Belenos menderatu behar du Durango Ilarduyak; bestela Espainiako Lehen mailara jaitsiko dira. Joaneko neurketa asteburu honetan jokatuko dute Asturiasen, eta bueltakoa hurrengoan, Arripausuetan.

Bestalde, Elorrioko Rugby Taldeak esan du ez duela igoera fasea jokatu. Ez dute Gazte mailako talderik, eta Federazioaren baldintzetako bat da.

Bazan Espainiako judolari onenen artean ariko da

Maiatzaren 11tik 13ra, Caceresen (Extremadura, Espainia) jokatu den Espainiako Judo Txapelketarako sailkatzea lortu du Maria Bazanek, haurren kategorian. Durangoko judo klubak hainbat probatan batutako puntuei esker lortu du sailkapena: Gasteizen, Frantzia, Durangon...

Eneko Diaz izango da Bazanen ordezkia. Eider Vivanco eta Dani Grigorek, aldiz, ezin izan dute sailkatu. ■ J.D.

Urteko partidurik onena jokatu da Abadiño

Derio Bren aurka dena egin zuen ondo eta erregionaleko Lehen mailan ariko da



Orain lider postuari eustea dute helburu. Jon Iglesias

Futbol erregionaleko Lehen mailara sailkatzea lortu zuen Abadiño, domekan, Derio Bren zelaian: 0-3. "Denak irten zigun ondo", aitortu du Oier Gonzalez entrenatzaileak. "Baloia jabetza, presioa, paseak... Denboraldiko partidurik onena jokatu genuen".

Igoera handik ordu betera ziurtatu zuten, matematikoki, Zamudion. Iraultza taldeak Mungia Bren aurka ez irabaztea behar zuten, eta Zamudiora joan ziren hamabi jokalarik eta

entrenatzailea, bigarren zatia ikustera: "Mungiak 86. minutuan lortu zuen berdinketaren gola. Geurea izango bazen moduan ospatu genuen. Ingarukoak harrিতa geratu ziren".

Ospakizuna antolatzeke asmoa dute: "Zuzendaritza batzen denean erabakiko dugu zer eta non. Ez gara aberatsak eta ditugun baliabideen arabera izango da", adierazi du Agustin Murua presidente ordeak. Asteburuan berriro kanpoan jokatuko du Abadiño, Gorlizen. ■ J.D.

Bidezabal taldea Euskadiko lehia bietan irabazle

Bidezabalgo emakumeek Euskadiko txapelketa nagusi biak irabazi dituzte aurten: pista estaliko eta aire librekoa. Azken hori Gasteizen jokatuako jardunaldin eskuratu zuten, Atletico SS eta Tolosarra taldeen aurretik sailkatuta.

Gizonen taldeak ere badu zer ospatua, Espainiako Lehen mailara igotzea lortu duelako, Maila berria asteburuan estreinatuko dute Donostian jokatu den jardunaldian. ■ J.D.

Berriro Bizkaiko txapelkun izan da Iturriaga

Hirugarrenez irabazi zuen Bizkaiko txapelketa Eneritz Iturriagak (Lointek taldea), Durangaldeko Bizkaikoloreak klasikoan. Beste biak 1997an eta 2002an lortu zituen.

Abadiñarrak ez du atsedenik hartzeko denborarik. Asteazken zehar Italian eta Luxenburgon ibili ostean, domeka honetan Espainiako Kopako lidertza defendatu beharko du Madril jokatu den San Isidro Sarian. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Portugalete
Domekan, 11:30etan, Tabiran OHOREZKO MAILAN

Elorrio - Somorrostro
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

MAILA GORENA

Iurretako - Mungia

Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio - Arratia

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Egintza

Zapatuan, 18:15etan, Landako kiroldegian

MAILA GORENA

Kurutziaga - Berrio Otxoa

Asteartean, 12:00etan, Landako kiroldegian

ASTEKORRI

HIRUGARREN MAILA

Saskibaloia - Egintza

(Gizonak - Jaitsiera fasea)

Tabirako Baque - Mondragon Uni.

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO MAILA

(emakumeak)

Tabirako Baque - DPI Cambio.

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

mugarrri eguna
MAIATZAK 5

DURANGO
DOLOMETA
MENDIGAN
NEBERONDO

IRTEERA ORDUA IRAUPENA IZEN EMATEA
Andra Mariako Elizpean
08:00etan
4 ordu, 6,4 kilometro
Maiatzaren 4ra arte. Txartel bat jasoko duzu

GAZTE INFORMAZIO BULEGOA:
Pinondo plaza, 1 - 94 603 00 30 - informazioa@durango-udala.net

Logos: Alpino Tabira, DURANGO Udala · Ayuntamiento, gazte informazio, durango go! goazen!, BFA DFB Buzkako Foru Alkandua

Jatetxe gida



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
